

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure balorezko proposamena aurrera eramán ahal izateko, hainbat jarduera pentsatu ditugu. Garatuko ditugun jardueren helburu nagusia emakumezkoen kirolak aldarrikatzea da. Aurrera eramango ditugun jardueren artean hurrengoak ditugu:

Ekitaldiak

Urtean zehar ekitaldi mota asko egingo ditugu (karitatezkoak, produktu bat merkaturatzen dugunean...)

Karitatezko ekitaldiak egingo ditugu, egun hoietan hainbat jarduera planteatuko ditugu (batez ere futbol partidak) eta bezeroek 3 €-ko zenbatekoa ordaindu beharko dute ekitaldian parte hartu nahi izatekotan. Diru hori berdintasunaren alde borroka egiten duten karitateei emango diegu (Fundación Mujeres, mum, UN Women...).

Gainera, produktu oso eksklusibo bat merkatura ateratzen dugunean (Emakumezkoen Futbol Ligako jokalaria batek eramaten dituen zapatilak), ekitaldi bat egingo dugu. Ekitaldi horretan parte hartzeko bezeroa sarrera bat erosi behar izango du edota sare sozialetan egingo dugun zozketa baten bidez sarrera irabazi. Egun honetan, bezeroak "museo" batean sartuko dira. Bertan, enpresaren hastapenak azalduko ditugu eta gure zapatilen ibilbidea erakutsiko dugu (gure lehen zapatiletatik merkaturatu berri dugunera arte). Museoren bisita amaitzean, bezeroek zapatilak probatzeko aukera izango dute, eta nahi izanez gero, erosi ahal izango dituzte. Azkenik, aipatu behar da batzuetan futbol jokalariai ekarriko ditugula ekitaldia erakargarriagoa izan dadin.

Aipatutako bi ekitaldien artean lehentasuna emango diogu bigarren ekitaldiari (produktu eksklusibo bat merkaturatzean), lehenik eta behin gure enpresan izango ditugun sarrerak ziurtatu nahi dugulako. Behin sarrera batzuk ziurtatuta, prest egongo gara donazioak emateko.


Informazio guneak

Gainera, hainbat herri, ikastetxe, merkataritza-gunetan... zehar egun batzuk iraungo duten informazio-puntuak zabaltzea pentsatu dugu. Informazio-puntu hauetan, jendeari futboleko emakumeek duten arazoari eta genero-desberdintasunei buruz jakinaraziko diegu, horretaz gain, gure enpresaren ikuspuntua erakutsiko dugu gai honen inguruan. Informazio gune horietan edonor hurbildu daiteke eta liburuxka bat jasoko du jakin behar duen informazio guztiarekin: nola sortu zen gure

enpresa, nola saltzen ditugun produktuak. Horretaz aparte, informazio hitzaldiak emango ditugu liburuxkan dagoen informazioarekin sakontzeko eta herritarren iritziak partekatzeko. Leku horietan, bezeroek dituzten zalantzak argitu ahal izango dituzte. Gainera, galdetegi sinple bat izango dute eskura, gure enpresari buruzko iritzi guztiak jar diezazkiguten, horrela, etorkizunean edozein akats konpondu ahal izateko.

Marketing kanpainiak

Urtean zehar hainbat ekitaldi egingo ditugu Espainiako hainbat herritan, gure produktua modu errazagoan eta eskuragarriagoan erakutsi ahal izateko. Horrela, edonor hurbildu ahal izango da emakumeari berdintasun gehiago bilatzen laguntzeko gure produktuarekiko edo ideiarekiko jakin-mina duen edonor hurbil daiteke eta eskaintzen dugun guztia ikus dezake. Ekitaldian hainbat jarduera izango ditugu, hala nola gure produktu guztiak doan probatzea, eta zenbait hitzaldi ere izango ditugu gaur egun emakumeek kirolean bizi duten arazoari buruz kontzientziatzeko. Horrela, mundu guztia jabetuko da emakumeek gizonen baino lesio gehiago izatearen arazoaz, futboleko oinetakoak ez baitaude ondo egokituta haietara. Era berean, hainbat influencer gonbidatu izango ditugu, ekitaldian gertatzen den guztia sare sozialetan eta futbolarekin lotutako jende garrantzitsuari erakusteko, futbolari zein klubetako zuzendariari.



Beste enpresa batzuekiko lankidetzak

Aipatu dugun bezala, gure enpresak berdintasunaren aldeko borrokan parte hartzen du, baina jakin dakigunez marka bakar batek ezin du borroka hori guztia mugitu beraz, beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzea erabaki dugu (enpresa horrek ez du zertan zapatilak saldu behar, are gehiago, hobeto etorriko litzaiguke enpresa horrek zapatilak ez saltzea, gure enpresa merkatu horretako enpresa bakarra izatera iritsi ahal dadin).

Enpresa askorekin lankidetzan aritzea gustatuko litzaiguke, baina gure lehentasunetako bat Emakumezkoen Futbol Liga da. Enpresa honen bidez, genero-berdintasunaren alde borrokatzeaz gain, gure marka sustatzeko aukera dugu. Guk gure futbol-zapatilak ematen dizkiogu enpresa honi eta

enpresak material hori emango die jokalariei. Beraz, bai gure enpresarentzako bai Emakumezkoen Futbol Ligarentzako onuragarria izango da.

Behin gure funtsezko jarduerak azalduta, esan behar dugu lehentasuna emango diogula aipatu ditugun azken bi jarduerari, gure enpresa erraztasun handiarekin aurrera eramateko ahalmena emango digutelako. Alde batetik, marketing kanpaina lagunduko digu merkatuan ezagunak izateko. Beste aldetik, enpresa batzuekiko lankidetzaren beste enpresa batzuekin harremanak izateko lagungarria izango da, gainera, merkatuan ezagunak diren enprekin harremana izanda gure enpresari prestigioa emango dio.